

3.EKINTZA GARRANTZITSUAK

Gure enpresaren aktibitatea, pertsonak leku batetik bestera garraiatzea da eta egiten dugun guztia gure esku egongo da inongo azpikontrataziorik gabe.

Gure prozesua honako hau izango da:

Lehenik, gure zerbitzua ezagutzera eramateko, hainbat txosten bidaliko ditugu joango garen herrietara. Bertan gure zerbitzuaren informazioa eta beraiek nahi dituzten orduak zehazteko, galdetegi bat ere agertuko da.

Tolosan ere jarriko dugu gure bulegoa, edozein kezka edo arazo sortzen bada segituan kontsumitzailearekin konpontzeko, harreman zuzena erabiliz.

Ibilbidea zeharkatuz eta jendearen iritzia kontuan hartu eta gero, ordu zehatz batzuetan pasako da autobusa. Geldialdiko, 0.35 € -ko kostua izango du, eta eskuz ordainduko da.

